

NOR-NORI-NORK / Indikatibua - Oraina (singularra eta plurala)

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|---------|--------------------------------------|--------------------|-----------------------|------------------------------------|--|---------------------|-----------------------|-------------------------------------|
| NIK | | dostat diat | do(sta)nat dinat | jat diot jotsat jotsanat | | dotsut dizut | dotsuet dizuet | jet diat jotsat jotsanat |
| HIK (g) | dostak didak | | | jak diok | doskuk diguk | | | |
| HIK (e) | dostan didan | | | jan dion | doskun digun | | | |
| HAREK | dost dit jostak jostan | dost/dosk dik | don din | jao dio jotsak jotsan | dosku digu jaskuk jaskun | dotsu dizu | dotsue dizue | jau die jotsek jotsane |
| GUK | | dosta(g)u diagu | dostana(g)u dinagu | jau diogu jotsau jotsanau | | dotsu(g)u dizugu | dotsue(g)u dizuegu | jeu digu jotsau jotsane/au |
| ZUK | dostazu didazu | | | jatzu dizuz | doskuzu diguzu | | | je/jatzue dizue |
| ZUEK | dostazue didazue | | | jatzue dizuzue | doskuzue diguzue | | | jeu dizue jotsak jotsane |
| HAREK | doste didate jotsek jostane | doste diate | done dinote | jau diote jotsek otsane | doskue digute jaskuek jaskune | dotsue dizute | dotsue dizute | jau dizue jotsak jotsane |

Deba Ibarreko
Aditz-etaulak
(Debaerdikoa) **9**

Aditz-forma berberak erabiltzen dira singularrian eta pluralian: harek neri sagarra(k) emon dost/zostan. jotzet/jotsek ditara diagu

NOR-NORI-NORK / Indikatibua - Lehena (singularra eta plurala)

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUI | HAREI |
|---------|--|---------------------|-----------------------|--------------------------------------|--|---------------------|-----------------------|---|
| NIK | | no nidan | no(sta)nan nidan | notsan nidan jotsan | | dotsun nidan | dotsuen nidan | jet nidan jotsan |
| HIK (g) | hostan hidan | | | hotsanan hidan | hoskunan digun | | | |
| HIK (e) | hostanan hidan | | | hotsanan hidan | hoskun digun | | | |
| HAREK | zostan zidan jostan jostanan | hostan zidan | hostanan zidan | zotsan zidan jotsan | doskun digun jaskun | dotsun dizun | dotsuen dizuen | jau zidan jotsan jotsane |
| GUK | | zosta(g)u zidagu | zostana(g)u zidagu | zotsau zidagu jotsanau | | dotsu(g)u dizugu | dotsue(g)u dizuegu | jeu zidagu jotsanau jotsane/au |
| ZUK | zostazu zidazu | | | zotsazu zidazu | doskuzu diguzu | | | je/zostazue dizue |
| ZUEK | zostazuen zidazuen | | | zotsazue zidazue | doskuzue diguzue | | | jeu zidazue jotsak jotsane |
| HAREK | zosten zidate josten jostanen | hosten zidate | hostanek zidate | zotsen zidate jotsen otsane | doskue digute jaskuek jaskune | dotsue dizute | dotsue dizute | jau zidate jotsen jotsane |

Antzuolako

Aditz-etaulak

Badihardugu Euskara Elkarte

* Zotsazun eta zotsazuen loturak be zidan

Iturria: "Antzuolako hizkera", Jone Larrañaga
Koordinatzailea: Maripi Laskurain eta Badihardugu Euskera Elkartea
Laguntzaileak: Jone Larrañaga, Lierni Legorburu, Asun Zabalo eta Mila Etxezarreta.
Azala eta inprenta: Gertu Komunikaziobide, Oñati

Argitalpena:
BADIHARDUGU Euskera Elkartea:
www.badihardugu.com
argitalpenak@badihardugu.com
Otaola hiribidea 1, Markeskoa Jauregia,
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943121775

I.S.B.N.: 978-84-613-0185-0
Lege Gordailua: SS-1572-2010

Deba Ibarra. 2010eko azaroa

Aurkibidea

| | |
|--------------------------------|----|
| Atarikoa | 1 |
| Sarrera..... | 2 |
| Indikatiboa | 5 |
| Baldintza | 8 |
| Ahalera | 11 |
| Subjuntiboa eta Agintera | 12 |
| Aditz trinkoak | 13 |

Atarikoa

Esku artian daukazun lan hau Badihardugu Euskara Elkartiak martxan ipini daben proiektu baten parte da. 2005. urtian martxan jarrittako proiektu honen asmua Deba ibarreko 17 herrixetako aditz-taulak osatu eta zabaltzia da.

Lantxo honetan aditz ezagun eta erabilixenak bakarrik batu nahi izan dittugu modu praktiko eta labur batian danon eskura ipintzeko. Aditzak modu zabalaguan jasota dare Jone Larrañagak egingdako “Antzuolako hizkera” liburuan, Antzuolako Udalak argittara emondakuan. Bertan herriko hizkeria batuta dago eta aditza osotasun haundixaguan azaltzen da.

Ahoz gehixen entzuten diran formak jaso dittugun arren, hemen agertzen diran aditz-formak idazteko orduan erabiltzekuak dira, hau da, lan honetan gure herriko berbetan idazteko balioko doskun proposamena egin nahi izan dogu. Hau dalata, forma osuak idatzi dittugu; *gara*, *ga* ahoskatu arren, *dogu*, *dou* ahoskatu arren edo *zaittugu*, *zaittuu* ahoskatu arren. Horretarako, adizki batzuen forma eta egitturia osatzeko, paradigmaren batasunari eta logikiari kasu egiñaz, eta euskera batuari begira lan egin dogu; azken fiñian euskera bat dala erakutsi eta herrikua eta batuaren arteko zubi-lana egitteko asmuaz sortu dogu-eta lan hau.

Tauletan lehenengo Antzuolan esaten dan forma azaltzen da, azpitan batuari dagokixon forma eta azpirago hitanoko formak, lehenengo gizon-zkuari berba egitterakuan erabiltzen dana eta gero emakume bati berba egitterakuan erabiltzekua.

Aditz forma batzuetan parentesixak ikusiko dittuzue, horrek esan nahi dau bi/hiru modutara esan/entzuten dala aditz hori: parentesi barrukua be esanda edo esan barik; esate baterako, *doia(r)*. Hortaz, batzuetan *doia* eta beste batzuetan *doiar* erabiltzen da. Beste batzuetan bi aditz-forma be ipini dittugu, forma bixak entzuten diralako berdin samar eta horregaittik bata zein bestia ontzat emon dittugu, *notsake/noskio* edo *balejittuk/n* eta *balittuk/n* esate baterako. Adizkixak kolore argixagua daukenian, ez dirala oso erabilixak esan nahi dau.

Lan hau ikusi ondoren konturatzen bazara zure belarrirako ezezagunak diran formak agertzen dirala edo zure inguruan beste modu baten esaten dirala, gustura hartuko dittugu zure komentari, iritzi eta proposamen danak. Ia ba, nahi dozun arte!

Badihardugu Euskara Elkartia

□ Antzuola aldeko aditzaren berezitasunak

1. Partizipiu eta aditz izena

- Gaztelerazko -ADO bukaerak Antzuola aldiari -AU emon dau aditz berrixetan: *pentsau, kantsau, kanbi-xau, altzau*. -IDO bukaerak, berriz, -IDU: *entretenu, mobidu, konsegidu*.
- Batuko -KI Antzuola aldiari -GI egitteko joeria dago: *ebagi, erabagi, esegi...* Baiña: *jaiki*.
- TA eransten da partizipiuak egitteko: *apurtuta, jota, jarritta...* -(R)IK be entzun leike, baiña ixa bakarrik IZAN BIHAR atzian jarritta. *Etorri izan bihar dau. / Partidua galdurik izan bihar dabe.*
- TZEN erabiltzen da nagusiki aditz izenak osatzeko -AU, -TU, -DU, -I eta bestela bukatutako aditzetan: *emendatzen, ezagutzen, konpontzen, ibiltzen, jaikitzen, botatzen...* (*busten-bustitzen, bixak entzuten dira*). Baiña *joten* eta ez *jotzen*.
- TEN erabiltzen da -N-z bukatuetan: *esaten, jaten, egoten...* Baita -(T)SI, -TXI eta -(T)ZI-z bukatuetan be: *egosten, erakusten, ixten, jazten...* Bestalde, ikusten da lehenago I-z bukatuetan -TEN aspektua orokor samarra zala: *ebalten, ipintzen, etorten, ekarten...* esaten dabe oinndio adineko askok. Baiña *igurtzitzen* zein *igurtzen-igurtzen*.
- KETAN be entzuten da, baiña oso gutxi: “*Andria beti frota ketan*”.
- Jo aditzarekin berriz beti -TEN erabiltzen da: “*Orduan bailabliak jotzen zebe*”.
- KO da gertakizuneko aspektua: *pentsauko, ibiliko, beteko...* Baiña -GO -N eta -I-z bukatuetan: *jango, hilgo, esango...*

2. Pluralgilliak

- Antzuolan eta Bergara gehixenian ez da pluralgillerik erabiltzen NORI dauken aditzetan: *zapatia galdu jako / zapatak galdu jako. Intxaurra emon dost / Intxaurrak emon dost*.
- IT da NOR-NORK-eko pluralgillia, batuan moduan: *prakak erosi dittut. / Kalia ikusi zaittut*.
- Z da EUKlrena, batuan bezala: *dauzkat, neuzkan*. Baiña baita EKARRI aditzarena be: *dauzkat, dauzkagu*. Euskal Herriko leku gutxitan gertatzen dan gauzia eta oso edadekuen ahoetan bakarrik gordetzen dana.

3. Beste berezitasun batzuk

- EBAN/ZEBAN: iraganaldiko 3. pertsona nagusiengan bixetara entzuten da: *eban/zeban, etorren/zetorren, otsan/zotsan*. Nagusiengan lehena oso arrunta bada be, Z-dun formak nagusitzen ari dira. Forma batzuk beti entzun dira Z-rekin: *zan, zittuan, ziharduan...*
- NOTSAKE/NOSKIO: bi formak entzuten dira. (Ik. taulak).
- GIÑAN: asko entzuten da *egitten* zentzuan: *kaka(g)iñan, txixa(g)iñan, bidegiñan, esolagiñan...*
- KIN: ZEIÑEKIN edo ZEREKIN *pentsau, sinistu, enamorau, konfiau, ahaztu, poztu...* esaten da eta ez ZEIÑENGAN edo ZERTAZ.
- JAT: NOR-NORI-NORK-en Bergaran *jat/dotsat* bi formak erabili dira baiña Antzuolan beti *jat*.
- NOR-NORI-NORK: Antzuolan *harek neri emon “dost”* esaten da beti, iñoiz ez “*dosta*”.

4. Jokaera berezixa daukaten aditzak

NOR-NORI

Ondorengo aditzak jokaera hau daukate, nahiz eta batzuk NOR edo NOR-NORK bezala be erabiltzen da-ben.

- **Akordau, ahaztu:** *Etxat akordau periodikua hartzia. / Zure izena ahaztu jat.*
- **Pentsau, hasarretu, amorratu, entendidu, begittandu, damutu...:** *Gaizki pentsatzen jat esan dozu-na. / Hasarretu jakon eta platerak lurrera botatzen hasi zan. / Aittajaunak ezotsan saririk emon, amorratu jakon eta txistua bota zotsan. / Hari asko entenditzen jako zezenen gaiñian. / Triste zeuala begittandu jatan. / Segi hola eta egunen baten garbatuko (edo damutuko) jatzu. Baiña: Nik desberdin pentsatzen dot. / Nerekin hasarretu (edo amorratu) da. / Damutuko zate... be bai.*
- **Izena:** *Zela jatzu izena?/ Amari Klementa jako izena. Baiña: Zela dozu (edo daukazu) izena be bai.*
- **Urtiak** egin, bete, kunplidu: *Neri egitten jat 87 urte eta Joxepari egitten jako 63. Baiña: 87 urte egin dittu (edo bete edo kunplidu be bai).*
- Hirugarren pertsoneri dagozkixen adizkixak gordetzen dira bakarrik: NOR haura eta haiek, eta NORI pertsona danak. Hortaz, ni-zuri eta gu-hari eta halakorik ez da.
- J-tankerako ebakerak egitten dira: *jako, jatzu, jakue...* EZ partikularekin batzerakuan TX bihurtzen da: *Pastelak etxat gustatzen, sekula etxatzu ahaztuko...*
- Indikatibuan iraganeko adizkixak oraiñaldikuari -N erantsita osatzen dira: *jako>jakon, jatzu>jatzun.*

NORK (NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK)

- **Urten** eta **igo** (edo **ixo**): *Berandu urten dot etxetik. / Txakurrak urten dost bidera. / Urbixara ixo giñuan. Baiña gaur egun NOR jokaeraz be entzuten dira: Jertse barik urten naiz. / Besua urten jat. / Etxera ixo naiz.*
- **Bihar** (behar): NOR-dun aditzekin doianian be bai: *Bihar ez dot Donostiara jua bihar.* Hau da erabilleraz zaharra, nahiz eta *Donostiara jua bihar naiz* be arrunta dan gaur egun.
- **Ezin**, osteraz, ondoko aditzaren arabera jokatzen da: *Bihar ezin naiz etorri. / Ezin dozu ardaurik eran.*
- **Autsi**, eutsi aditzaren agintera trinkua entzun leike. Zuka: *autsi* (har ezazu hau). Hika gizona: *autsa* (har ezak hau). Hika emakumia: *autson* (har ezan hau). Hika plurala, gizona: *autsaz*. Hika plurala, emakumia: *autsonaz*.
- Baldintza, ahalera edo subjuntibua saihesteko aditza jokatu barik erabiltzen da: *guk zu dantzian ikusi ez-kio, barre egingo giñuke / zu gurera etortzia nahi dot / zuk ni ekarri ez-kio, nik zu eruango ziñuzket...*
- Soiltzia nabarmena da baldintzan, ahaleran, subjuntibuan eta aginteran; baiña indikatibuan be soiltzia emoten da; esate baterako, *ziñuzten* erabiltzen da zortzi adizki desberdin esateko: *guk zu ziñuzten, guk zuek ziñuzten, nik zuek ziñuzten...* (Ik. taula)
- NOR-NORK aditzetan alternantzia batzuk emoten dira:
 1. -Ñ/-NDD alternantzia: *giñuztan/gindduztan, giñuzun/gindduzun, giñuzuen/gindduzen...*
 2. -e/-a alternantzia: *ziñuzten/ziñuztan, giñuztan/giñuzten...*

NOR-NORI-NORK

- **Lagundu, itxoin, jarraitu, segi(du), begiratu:** *Etxeraiño lagundu zotan. / Plazan itxoingo dotsut. / Atzetik jarraitu doste. / Arpegira begiratu dost.*
- **Iritzi:** *Gaizki iritzi notsan zuk esandakuari. / Zer irizten jatzue plaza berrixari? Oso galduta. Deizkion forma trinkua be entzuten da: berak deizkionian basora jua eta iñon arbolak botatzen dittu.*
- **Ekin, laga, jarein:** *Goguakin ekin jao kurtso berrixari / Lanari laga eta etxera etorri zan / Txakurrari jareinxozu.*
- **Eragin:** *Pedalei gogor eragin / Asko eragin jao andrian akzidentiak.*

5. Aditz trinkuak

- **Egon, ibili, juan, etorri, jakin, eruan, ekarri, euki, erabili, jardun eta esan**-ek (diño...) jokaera trinkua be badaukate (Ikus taulak).
- **Jardun** aditza bizi-bizirik dago eskualdian, Euskal Herriko leku gehixenetan ez bezala.
- Ez dago pluralgillia erabiltzeko joera haundirik, tauletan zenbait trinkoren pluralak sartu badittugu be, gehixenetan singularrak eta pluralak forma bera hartzen dabe: *Besapian botillak dakat (dakartzat)*.
- Adiñekuen artian asko erabiltzen da ESAN aditzaren trinkua: *ze ete diño lñakik?* (ez: *ze kontatzen dau lñakik?*) / *Ze diñozu?* (ez: *ze kontatzen dozu?*)
- *Dirudi, deizkion, darixola, autsi...* bezalako adizki trinko bakartuak be entzuten dira. Noizbait erabillitako adizkeren azken arrastuak dirudite.

6. Hiketa

- Hitano alokutibuan J- erabiltzen da aditz hasieran, oraiñaldixan: *juat, jonat, jakixat, jaukan...* EZ aurretik daukanian, -TX bihurtzen da: *etxuat, etxonat, etxakixat, etxaukan...*
- Menpeko perpausekin ez da forma alokutiborik erabiltzen: *Etxuat uste etorriko danik. / Denpora ona egingo dabela esan jok Pellok. / Preguntaxok noiz datorren.* Erabillera hau aldrebestu egin da aspaldian, gaztien ahotan batez be, eta horrelako esaldi okerrak entzuten dira: *Etxuat uste etorriko dokenik. / Denpora ona egingo jokela esan jok Pellok. / Preguntaxok noiz jatoken.* Hitanozko forma alokutibuak ez dabe -LA, -N, -LAKO edo gisako atzizki menperatzaillerik onartzen.
- Menpeko aditza hi pertsonakua darian, ostera, jarri leixoke atzizkixa aditzari: *Esan jok heuk daukakela giltzia. / Pentsatzen jonat hi gizurretan habillela nerekin. / Emoten jon sekula eztonala gizonik ikusi.*
- Baldintzan bada alokutiborik? Gramatikalarixak diñue ezetz. Adiñekuen berbetiari erreparatuta, konturatu gara zenbat eta zaharragua eta hiztun hobia izan, orduan eta gutxiago erabiltzen dabela alokutibua baldintzan. *Nik hori jakin izan baneu enintzuan juango. / Haura nor balitz etzuan huskerixa horregaittik hasarretuko.* Edozein modutan, gaur egun jende gehixenak darabil alokutibua baldintzako forma gehixenetan: *Nik hori jakin izan banejok enintzuan juango. / Haura nor balitzok etzuan huskerixa horregatik hasarretuko.*

7. Berorika

Berorika be egitten zan sasoi baten jende inportantiarekin, abadiarekin, abokatuarekin edo medikuarekin, adibidez. *Jango dau hamarretakotxo bat berorrek? / Noiz etorriko da beroi ama konfesatzera?* Hirugarren pertsonako aditza erabiltzen da. Menpekotasuna adierazten dau trataera honek eta gaur egun ez da erabiltzen, adar-soiñuan edo aspaldiko kontuak esaterakuan ez bada.

8. Ohar orokorrak

Ahaleran, subjuntibuan eta aginteran formarik erabillienak bakarrik jaso dittugu hemen, baiña Jone Larrañagak idatzitako "Antzuolako hizkera" liburuan badauzkazue hemen jaso gabeko beste forma batzuk be.

Aditz trinkuen kasuan be, baldintzaren ondorixuak ez dittugu jaso, ia ez dalako erabiltzen; eta Joneren liburuan hemen agertzen ez diran aldaera gehixago be topau zeinkie.

Antzuola, Debaerdikoa

NOR / Indikatibua

| | ORAINA | LEHENA |
|--------|---|--|
| NI | naiz naiz nok non | ni(n)tzan nintzen nitzuan ni(n)tzonan |
| HI (g) | haiz haiz | hitzan hintzen |
| HI (e) | haiz haiz | hitzanan hintzen |
| HAURA | da da dok don | zan zen zuan zonan |
| GU | ga(ra) gara gaittuk gaittun | giñan ginen giñuztan giñuztanan |
| ZU | za(ra) zara | ziñan zinen |
| ZUEK | za(re)te zarete | ziñaten zineten |
| HAREK | di(r)e/di(r)a dira dittuk dittun | zi(r)en/zi(r)an ziren zittu(zt)an zittu(zta)nan |

Emakumezkuen alokatibuan a/e alternantzia dago: *giñuztanan/giñuztenan***NOR-NORI / Indikatibua - Oraina**

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|-------|--|----------------|----------------|---|--|-------------------|---------------------|--|
| HAURA | jat zait <i>jatak/jatek</i> <i>jatan/jaten</i> | jak zaik | jan zain | jako zaio <i>jakok</i> <i>jakon</i> | jaku zaigu <i>jakuk</i> <i>jakun</i> | jatzu zaizu | jatzue zaizue | jakue/jate zaie <i>jakuek/jatek</i> <i>jakone/jatene</i> |
| HAREK | jat zaizkit <i>jatak/jatek</i> <i>jatan/jaten</i> | jak zaizkik | jan zaizkin | jako zaizkio <i>jakok</i> <i>jakon</i> | jaku zaizkigu <i>jakuk</i> <i>jakun</i> | jatzu zaizkizu | jatzue zaizkizue | jakue/jate zaizkie <i>jakuek/jatek</i> <i>jakone/jatene</i> |

NOR-NORI / Indikatibua - Lehena

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|-------|--|----------------------|-------------------------|---|--|------------------------|--------------------------|---|
| HAURA | jatan/jaten zitzaidan <i>jatan</i> <i>jatanan</i> | jatan zitzaian | jatanan zitzaianan | jakon zitzaion <i>jakuan</i> <i>jakonan</i> | jakun zitzaigun <i>jakuan</i> <i>jakunan</i> | jatzun zitzaizun | jatzuen zitzaizuen | jakuen/jaten zitzaien <i>jakuen/jaten</i> <i>jakonen/jatene</i> |
| HAREK | jatan/jaten zitzaizidan <i>jatan</i> <i>jatanan</i> | jatan zitzaizkian | jatanan zitzaizkinan | jakon zitzaizkion <i>jakuan</i> <i>jakonan</i> | jakun zitzaizkigun <i>jakuan</i> <i>jakunan</i> | jatzun zitzaizkizun | jatzuen zitzaizkizuen | jakuen/jaten zitzaizkien <i>jakuen/jaten</i> <i>jakonen/jatene</i> |

Aditz forma berberak erabiltzen dira singularrian eta pluralian: *bidian otsua(k) agertu jat/jatan*

NOR-NORK / Indikatibua - Oraiña

| | NIK | HIK (g) | HIK (e) | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HAREK |
|--------|---|--------------------------|--------------------------|---|---|----------------------------|------------------------------|--|
| NI | | nok nauk | non naun | nau nau najok/nauk najon/naun | | nazu nauzu | nazue nazue | nabe naute najuek najone |
| HI (g) | haut haut | | | hau hau | haugu haugu | | | habe haute |
| HI (e) | haut haut | | | hau hau | haugu haugu | | | habe haute |
| HAURA | dot dut juat jonat | dok duk | don dun | dau du jok jon | do(g)u dugu juau jonau | dozu duzu | dozue duzue | dabe dute juek jone |
| GU | | gaittuk gaituk | gaittun gaitun | gaittu gaitu gaittuk gaittun | | gaittuzu gaituzu | gaittuzue gaituzue | gaittue gaituzte gaittuek gaittune |
| ZU | zaittut zaitut | | | zaittu zaitu | zaittu(g)u zaitugu | | | zaittue zaituzte |
| ZUEK | zaittuet zaituztet | | | zaittue zaituzte | zaittue(g)u zaituztegu | | | zaittue zaituztete |
| HAREK | dittut naute jittuat jittunat | dittuk dituk | dittun ditun | dittu ditu jittuk jittun | dittu(g)u ditugu jittuau jittunau | dittuzu dituzu | dittuzue dituzue | dittue dituzte jittuek jittune |

NOR-NORK / Indikatibua - Lehena

| | NIK | HIK (g) | HIK (e) | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HAREK |
|--------|---|----------------------------|-------------------------------|--|---|-------------------------------|--------------------------------|--|
| NI | | nindduan ninduan | ninddunan nindunan | nindduan ninduen nindduan ninddunan | | nindduzun ninduzun | nindduzuen ninduzuen | nindduen ninduten nindduen ninddunen |
| HI (g) | hinddutan hindudan | | | hinduan hinduen | hinddunan (1) hindugun | | | hindduen hinduten |
| HI (e) | hinddunan hindudan | | | hinddunan hinduen | hinddunan hindugun | | | hinddune/an hinduten |
| HAURA | neban nuen najuan najonan | huan huen | honan/hebanan huen | zeban zuen juan jonan | giñuan genuen giñuan giñunan | ziñuan zenuen | ziñuen zenuten | zeben zuten juen jonen |
| GU (2) | | giñuztan gintuan | giñuztanan gintunan | giñuz(t)en gintuen giñuztan giñuztanan | | giñuzun gintuzun | giñuzuen gintuzuen | giñuzten gintuzten giñuzt(en) giñuztanan |
| ZU | ziñuzten/an zintudan | | | ziñuz(t)en zintuen | ziñuzten/an zintugun | | | ziñuzten zintuzten |
| ZUEK | ziñuzten/an zintuztedan | | | ziñuzten zintuzten | ziñuzten zintuztegun | | | ziñuzten zintuzteten |
| HAREK | nittuan nituen najittuan najittunan | hittuan hituen | hittunan hituen | zittuan zituen jittuan jittunan | giñu(t)zen genituen giñuztan giñuztanan | ziñu(t)zen zenituen | ziñuzten zenituzten | zittuen zituzten jittuen jittunen |

(1) Emakumezkoentzat *ginddunan* eta gizonezkoentzat *gindduan* ere erabiltzen dira.

(2) Forma batzuetan *giñuztan*, *giñuzun*, *giñuz(t)en*... "ñ" eta "ñdd" forma bixak entzuten dira.

NOR-NORI-NORK / Indikatibua - Oraina (singularra eta plurala)

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|---------|---|---------------------------|------------------------------|---|---|----------------------------|------------------------------|--|
| NIK | | dostat <i>diat</i> | do(sta)nat <i>dinat</i> | jat <i>diot</i> <i>jotsat</i> <i>jotsanat</i> | | dotsut <i>dizut</i> | dotsuet <i>dizuet</i> | jet <i>diet</i> <i>jotset</i> <i>jotse/ane</i> |
| HIK (g) | dostak <i>didak</i> | | | jak <i>diok</i> | doskuk <i>diguk</i> | | | jek <i>diek</i> |
| HIK (e) | dostan <i>didan</i> | | | jan <i>dion</i> | doskun <i>digun</i> | | | jen/jane <i>dien</i> |
| HAREK | dost <i>dit</i> <i>jostak</i> <i>jostan</i> | dost/dosk <i>dik</i> | don <i>din</i> | jao <i>dio</i> <i>jotsak</i> <i>jotsan</i> | dosku <i>digu</i> <i>joskuk</i> <i>joskun</i> | dotsu <i>dizu</i> | dotsue <i>dizue</i> | jau <i>die</i> <i>jotsek</i> <i>jotse/ane</i> |
| GUK | | dosta(g)u <i>diagu</i> | dostana(g)u <i>dinagu</i> | jau <i>diogu</i> <i>jotsau</i> <i>jotsanau</i> | | dotsu(g)u <i>dizugu</i> | dotsue(g)u <i>dizuegu</i> | jeu <i>diegu</i> <i>jotseu</i> <i>jotse/ane</i> |
| ZUK | dostazu <i>didazu</i> | | | jatzu <i>diozu</i> | doskuzu <i>diguzu</i> | | | jetzu <i>diezu</i> |
| ZUEK | dostazue <i>didazue</i> | | | jatzue <i>diozue</i> | doskuzue <i>diguzue</i> | | | je/atzue <i>diezue</i> |
| HAREK | doste <i>didate</i> <i>jostek</i> <i>jostane</i> | doste <i>diate</i> | done <i>dinate</i> | jau <i>dio</i> <i>jotsek</i> <i>otsane</i> | doskue <i>digute</i> <i>joskuek</i> <i>joskune</i> | dotsue <i>dizute</i> | dotsue <i>dizute</i> | jau <i>diete</i> <i>jotsek</i> <i>jotse/ane</i> |

Aditz-forma berberak erabiltzen dira singularrian eta pluralian: *harek neri sagarra(k) emon dost/zostan. Jotzet/jotset* aldaera dago.

NOR-NORI-NORK / Indikatibua - Lehena (singularra eta plurala)

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|---------|--|--------------------------|------------------------------|--|--|---------------------------|-----------------------------|--|
| NIK | | nostan <i>nian</i> | no(sta)nan <i>ninan</i> | notsan <i>nion</i> <i>najotsan</i> <i>najotsanan</i> | | notsun <i>nizun</i> | notsuen <i>nizuen</i> | notsen <i>nien</i> <i>najotsen</i> <i>najotsanen</i> |
| HIK (g) | hostan <i>hidan</i> | | | hotsan <i>hion</i> | hoskuan <i>higun</i> | | | hotsen <i>hien</i> |
| HIK (e) | hostanan <i>hidan</i> | | | hotsanan <i>hion</i> | hoskunan <i>higun</i> | | | hotse/anen <i>hien</i> |
| HAREK | zostan <i>zidan</i> <i>jostan</i> <i>jostanan</i> | hostan <i>zian</i> | hostanan <i>zinan</i> | zotsan <i>zion</i> <i>jotsan</i> <i>jotsanan</i> | zoskun <i>zigun</i> <i>joskuan</i> <i>joskunan</i> | zotsun <i>zizun</i> | zotsuen <i>zizuen</i> | zotsen <i>zien</i> <i>jotsen</i> <i>jotse/anen</i> |
| GUK | | gonstan <i>genian</i> | gonstanan <i>geninan</i> | gontsan <i>genion</i> <i>gontsan</i> <i>gontsananan</i> | | gontsun <i>genizun</i> | gontsuen <i>genizuen</i> | gontsen <i>genien</i> <i>gontsen</i> <i>gontse/anen</i> |
| ZUK | zostazun <i>zenidan</i> | | | zontsan/jatzun* <i>zenion</i> | zozkuzun <i>zenigun</i> | | | zontsen* <i>zenien</i> |
| ZUEK | zostazuen <i>zenidaten</i> | | | zontsen/jatzuen* <i>zenioten</i> | zozkuzuen <i>zeniguten</i> | | | zontsen* <i>zenieten</i> |
| HAREK | zosten <i>zidaten</i> <i>josten</i> <i>jostanen</i> | hosten <i>ziaten</i> | hostanan <i>zinateden</i> | zotsen <i>zioten</i> <i>jotsen</i> <i>jotsanen</i> | zozkuen <i>ziguten</i> <i>joskuen</i> <i>joskunen</i> | zotsuen <i>zizuten</i> | zotsuen <i>zizueten</i> | zotsen <i>zieten</i> <i>jotsen</i> <i>jotsanen</i> |

* Zostazun eta zozkuzuen formak erabiltzen dira.

"notsan, gontsan, zontsan...." idatzi badogu be, kasurik gehixenetan "notzan, gontzan, zontzan...." entzuten dira eta nagusi batzuk "notxan, gontxan, ..." ahoskatzen dabe.

NOR / Baldintza eta Ondorua

| | BALDINTZA | ONDORIOA |
|--------|---|---|
| NI | banitz <i>banintz banitzok banitzon</i> | nitzake <i>nintzateke nitzakek nitzaken</i> |
| HI (g) | bahitz <i>bahintz</i> | hitzake <i>hintzateke</i> |
| HI (e) | bahitz <i>bahintz</i> | hitzake <i>hintzateke</i> |
| HAURA | balitz(1) <i>balitz balitzok balitzon</i> | litzake <i>litzateke litzakek litzaken</i> |
| GU | bagiña <i>bagina</i> | giñake <i>ginateke giñakek giñaken</i> |
| ZU | baziña <i>bazina</i> | ziñake <i>zinateke</i> |
| ZUEK | baziñate <i>bazinete</i> | ziñakie <i>zinatekete</i> |
| HAREK | balira <i>balira</i> | lirak(i)e <i>lirateke</i> |

(1) Batzuk *balitz/balitz*a bereizten dabe. Baldintza iraganian erabiltzen dabe. *Ama etxera jungo balitz/ Ama iaz Errioxara jun balitza.*

NOR-NORI / Baldintza

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUERI | HARERI |
|-------|---|-------------------------------------|---|--|---|---|---|---|
| HAURA | balitzat <i>balitzait balitzatek balitzaten</i> | balitzak <i>balitzaik</i> | balitzan <i>balitzain balitzakok balitzakon</i> | balitzako <i>balitzαιο balitzakuk balitzakun</i> | balitzaku <i>balitzaidu</i> | balitzazu <i>balitzazu</i> | balitzazue <i>balitzazu</i> | balitzakue <i>balitzae balitzakuek balitzakone</i> |
| HAREK | balitzat <i>balitzait balitzatek balitzaten</i> | balitzak <i>balitzaik</i> | balitzan <i>balitzain balitzakok balitzakon</i> | balitzako <i>balitzaikio balitzakuk balitzakun</i> | balitzaku <i>balitzaidigu</i> | balitzazu <i>balitzaidizu</i> | balitzazue <i>balitzaidizue</i> | balitzakue <i>balitzaidie balitzakuek balitzakone</i> |

Galartza auzoko lekuko batek beste erro bat be erabili zeban, eta halakuak esan zittuan: *balejat, balejak, balejan, balejako, balejaku, balejatzu, balejatzue, balejakue.* Dana dala, *balitzat* erakuak gehixago eta errazago erabiltzen zittuan.

NOR-NORI / Ondorua

| | NERI | HIRI (g) | HIRI (e) | HARI | GURI | ZURI | ZUEI | HAREI |
|-------|---|--|--|---|---|--|---|--|
| HAURA | litzata/eke <i>litzaidake litzatakek litzataken</i> | litzatakek <i>litzaiake</i> | litzataken <i>litzainake</i> | litzakio(ke) <i>litzaioke litzakio litzakion</i> | litzaki(g)uke <i>litzaiduke litzakiguk litzakigun</i> | litzakitzu <i>litzaiduze</i> | litzakizue <i>litzaidueke</i> | litzako(k)ie <i>litzaike litzakuek litzakuen</i> |
| HAREK | litzata/eke <i>litzaidake litzatakek litzataken</i> | litzatakek <i>litzaidake</i> | litzataken <i>litzaidake</i> | litzakio(ke) <i>litzaidake litzakio litzakion</i> | litzaki(g)uke <i>litzaidake litzakiguk litzakigun</i> | litzakizu <i>litzaidake</i> | litzakizue <i>litzaidake</i> | litzako(k)ie <i>litzaidake litzakuek litzakuen</i> |

Galartza auzoko lekuko batek beste erro bat be erabili zeban, eta halakuak esan zittuan: *najatake, lejakek, lajakuke, laatzuke, laatzukie, litzakokie.* Eta berdin pluralian. Dana dala, *litzatake* erakuak gehixago eta errazago erabiltzen zittuan.

NOR-NORK / Baldintza

| | NIK | HIK (g) | HIK (e) | HAREK | GUK | ZUK | ZUEK | HAREK |
|--------|---|--|--------------------------------------|---|--|---------------------------------------|---|--|
| NI | | banindduk <i>baninduk</i> | baninddun <i>banindun</i> | baninddu <i>banindu</i> | | banindduzu <i>baninduzu</i> | banindduzue <i>baninduzue</i> | baninddue <i>banindute</i> |
| HI (g) | bahinddut <i>bahindut</i> | | | bahinddu <i>bahindu</i> | bahinddu(gu) <i>bahindugu</i> | | | bahinddue <i>bahindute</i> |
| HI (e) | bahinddut <i>bahindut</i> | | | bahinddu <i>bahindu</i> | bahinddu(gu) <i>bahindugu</i> | | | bahinddue <i>bahindute</i> |
| HAURA | baneu <i>banu</i> <i>banejok</i> <i>banejon</i> | baheu <i>bahu</i> | baheu <i>bahu</i> | baleu <i>balu</i> <i>balejok</i> <i>balejon</i> | bagiñu <i>bagenu</i> <i>bagiñu(ke)k</i> <i>bagiñu(ke)n</i> | baziñu <i>bazenu</i> | baziñu(ki)e <i>bazenute</i> | balebe <i>balute</i> <i>balejuek</i> <i>balejone</i> |
